

GRADU AMAIERAKO LANA

Larba Terapiaren erabilera zauri kronikoen desbridamenduan



Gasteizko Erizaintza Unibertsitate Eskola
Egilea: Ainhoa Ferreira Arriola
Data: 2023/04/24
Hitz kopurua: 6240

ESKER ONAK

*Atxe, ama eta Xabierrei,
baldintzarik gabeko sostengu izateagatik.*

*Atxonai eta amonai,
etengabeko laguntzagatik.*

*Lagunei,
lau urte hauetan bizi izandako une guztiengatik.*

Matxe-matxe danoi.

AURKIBIDEA

1. SARRERA	2
2. MARKO TEORIKOA ETA JUSTIFIKAZIOA	3
3. HELBURUA	7
4. METODOLOGIA	8
5. EMAITZAK ETA EZTABAIDA	10
1. Sendatze tasa eta zauriaren tamaina	10
2. Ohantzearen prestakuntza	13
2.1. Desbridamendu tasa.....	13
2.2. Bakteria karga	14
3. Desbridamendu eta sendatze denbora.....	16
4. Konplikazioak	16
4.1. Mina	16
4.2. Anputazioa	18
6. ONDORIOAK.....	19
7. LIMITAZIOAK.....	20
8. BIBLIOGRAFIA.....	21
9. ERANSKINAK	25
I. Eranskina - Kontzeptu taula	25
II. Eranskina - Bilaketa taulak	26
III. Eranskina - Fluxu diagrama.....	32
IV. Eranskina - Ikerketa kuantitatiboko azterketaren irakurketa kritiko garatua	33
V. Eranskina - Ikerketa kuantitatiboko azterketen irakurketa kritikoa.....	37
VI. Eranskina - Laburpen taula	40
VII. Eranskina - Zuhaitz kategoriala	44

1. SARRERA

Marko teorikoa eta justifikazioa: Biztanleria orokorraren %1-2k beheko gorputz-adarretan ultzera kronikoak dituela kalkulatzen da; batez ere hauen etiologia zainetakoa izanik (%70), honen atzetik arterialak (%20) eta azkenik, neuropatikoak (%10) egongo ziren. Nahiz eta aposituen erabilera on bat egin eta aurrerapen teknologikoak izan diren, zauri konplexuen kopurua handituz doa, eta horrek erronka batzuk dakartzkio osasun-sistemari. Osasun profesionalei zauriaren ohantzea prestatzeak ikuspegi global bat eskaintzen die orbaintzea oztopatzen duten elementuak kentzeko, eta baita orbaintze prozesua estimulatzeko ere, aurrerapen horien onurak maximizatzeko helburuarekin. Praktika mediko modernoan hainbat desbridatze metodo daude, horietako bat Larba bidezko Desbridatze Terapia (LDT) izanik. LDT edo “Maggot” terapia, zizareen bitartez ehun ez-bideragarria deuseztatzeko metodo bezala deskribatzen da. Desbridatze mekanikoari dagokion metodo bat da, zeinek infekzioari aurre egiten laguntzeaz gain, zauriaren ixtean ere laguntzen duen.

Helburua: Behe gorputz adarretako ultzeren ohantzean Larba bidezko Desbridatze Terapiak (LDT) duen eraginkortasuna aztertzea.

Metodologia: Literaturaren berrikusketa kritikoa. Bilaketa ondorengo datu-baseetan burutu zen: Medline Ovid, CINAHL, Cochrane library, CUIDEN eta EMBASEn. Era berean, eskuzko bilaketa ere egin zen hainbat informazio iturrietan, European Journal of Vascular and Endovascular Surgery aldizkarian, Science Direct editorialean, eta ebidentzian oinarritutako praktika klinikoko gidetan, hala nola. Gradu amaierako lan hau idazteko, azkenean 13 artikulua erabili dira, horietatik, 6 entsegu kliniko, 5 ikerketa quasi-experimental, kohorte ikerketa erretrospektibo 1 eta meta-analisi 1 izanik.

Emaitzak: Emaitzak 4 kategoria desberdinetan banatu ziren: ultzeraren sendatze tasa eta zauriaren tamaina, ohantzearen prestakuntza, non desbridamendu tasa eta bakterio karga landu ziren, ultzeraren desbridamendu denbora eta ultzeraren sendatze denbora, eta azkenik, terapiaren konplikazioak bi azpi-kategorietan sailkatuz, mina eta anputazioa ekiditea.

Ondorioak: LDT-aren aldeko eraginkortasuna erakutsi dute lorturiko azken emaitzek: sendatze tasa hobetuz, zauriaren tamaina murriztuz, desbridamendu eta sendatze denbora murriztuz eta anputazioa saihestuz. Minari dagokionez, LDT eta tratamendu konbentzionala alderatuta, estatistikoki ez dago alderik. Hala ere, kontrol taldeetan aplikatzen zen desbridatze kirurgikoaren aurretik, anestesia topikoa jartzen zela aipatu beharra dago. Infekzio tasa murrizteari dagokionez ere, emaitzak ez dira estatistikoki esanguratsuak.

Hitz gakoak: Behe gorputz adarretako ultzerak, desbridamendua, larba terapia.

2. MARKO TEORIKOA ETA JUSTIFIKAZIOA

Gure gizartean, erizainek aurre egin beharreko kompetentzien artean zauri kronikoak aurkitzen dira, osasun-sistemaren baliabideetan zama nabarmen jarriz eta nolabait gaixoak ere ezgaituz⁽¹⁾.

Zauri kronikoen agerpenari dagokionez, 60 urtetik gorako pertsonak dira gehien pairatzen dituztenak⁽²⁾. Intzidentzia biztanleria orokorraren %0,78koa da, eta prebalentzia %0,18tik %0,32ra aldatzen da⁽³⁾.

Azken urteetan, mundu mailan, 65 urtetik gorako biztanleriari dagokion kopurua bikoiztu egin da, 1981ean biztanleriaren %11,2 izatetik 2011n %17,3 izatera igaro baita. Biztanleriaren proiektzioaren arabera, 2050. urterako adineko pertsona kopurua 15 milioi baino gehiagokoa izango da, gaur egungo datuei erreparatuta, ia bikoitza izanik. Beraz, Espainiako biztanleria osoaren herena ordezkatzeko dute adineko pertsonak (%36,4). Gainera, azken azterlan demografikoek, mendekotasun funtzionala duten adineko biztanleriaren gorakada handia aurreikusten dute⁽⁴⁾.

Estatu mailan ez dago zauri kronikoaren definizio adosturik, baina bai onartuta dagoela zauri akutuek arazorik gabe egiten dituztela aurrera zauriak orbaintzeko lau etapetan zehar (hemostasia, hantura, ugaritzea eta birmoldatzea/heltzea), eta 4 eta 6 aste bitartean orbaintzen direla. Aitzitik, zauri kronikoek normalean ez dute aurrera egiten zauriak orbaintzeko etapetan zehar, askotan fase jakin batean tratatzen dira eta 4 eta 6 aste bitartetik gora behar izaten dituzte sendatzeko. Sei astez baino gehiagoz irauten duen edozein zauri kronikotzat jotzen da⁽⁵⁾.

Zaurien kronifikazioan laguntzen duten faktore eragileen artean, hauek izango lirateke gehienetan azaltzen direnak: Azpiko prozesu patologiko bat, hala nola zainetako hipertentsioa, diabetesa eta gaixotasun arterial periferikoa, zauriaren ohearen hipoxia, zauriaren infekzioa, biofilmaren presentzia eta nutrizio txarra beste hainbaten artean⁽⁵⁾. Nutrizioak funtsezko zeregina du zauri kronikoen orbaintzean, beharrezkoa baita mantenugaien kanpoko ekarpen bat egitea ehunaren erreparaziorako⁽⁶⁾.

Aurre egin beharreko egoera maneiatzea zaila den zauria duen pertsona baten zainketa bada: Kronikoa, mingarria, mugikortasun mugatuta, exudatu ugari, usain txarra eta infekzioa pairatzea. Isolamendua, depresioa eta zauria izatearen ondoriozko, eta ez horregatik garrantzia gutxiagoko nahasmendu emozionalak ere pairatzeko arriskua izaten dituzte gaixoek. Orduan, oso garrantzitsua da ematen den zainketa arlo fisikotik haratagokoa izatea, hau da, zainketa, kausa tratatzetik eta sintometatik harago joan behar da, horrela osasunarekin lotutako bizi-kalitateari buruzko alderdiak ere jorratzeko, beti ere ardatza prebentzian jarriz⁽⁷⁾.

Zauri kronikoak artatzearen kostuari dagokionez, %22a aposituen erabileraren gastuari dagokio, %41a erizainen lan denborari, eta geratzen den %52ko gastua herrialde garatuetako osasun aurrekontuko ospitale egonaldiei dagokiona izango litzateke⁽⁸⁾. Nahiz eta aposituen erabilera on bat egin eta aurrerapen teknologikoak izan diren, zauri konplexuen kopurua handituz doa, eta

horrek erronka batzuk dakartzkio osasun-sistemari⁽⁹⁾. Zauri kronikoek, biztanleriaren %2 eta %6aren artean dute eragina. Adibide gisa ditugu Erresuma Batuko datuak, non 2,2 milioi pertsonak aurkezten dituzten zauriak, edota ospitale mailan okupatutako ohe kopuruaren %25 eta %50 artean zauri kronikoak aurkezten dituzten pazienteei dagokien. Datuei erreparatuz, hauek milioika euroko gastua eragiten dute, Europa mailan osasun gastuko aurrekontuaren %2 eta %4 arteko gastua suposatuz⁽¹⁰⁾.

Biztanleria orokorraren %1-2k beheko gorputz-adarretan ultzera kronikoak dituela kalkulatu da; batez ere hauen etiologia zainetakoa izanik (%70), honen atzetik arterialak (%20) eta azkenik, neuropatikoak (%10) egongo ziren⁽¹¹⁾. Aurretik esan bezala, zainetako ultzerak kasuen % 75-80 dira. Prebalentzia % 0,5 eta % 0,8 bitartekoa da, 10 pertsonetatik 7 emakumeak izanik. Intzidentzia aldiz, 2 eta 5 kasu artekoa mila pertsonako eta urteko. Etiologia iskemikoko ultzeren kasuan, prebalentzia % 0,2 eta % 2 artekoa da, eta urtean milioi bat biztanleko 220 kasu berri eragiten ditu. Etiologia neuropatikoko ultzeretan aldiz, % 15-25eko prebalentzia estimatzen da. Intzidentziari dagokionez aldiz, 5 eta 10 kasu berriren artean mila paziente diabetiko eta urte bakoitzeko⁽¹²⁾.

Zientzia molekularrean egindako azken aurrerapenak zauriaren orbaintzeari buruz dagoen ezagutza hobetzea ekarri dute, eta zaurien tratamendurako baliagarriak diren aukera tekniko berriak agertzea erraztu dituzte ere bai⁽¹³⁾. Osasun profesionalei zauriaren ohantzea prestatzeak ikuspegi global bat eskaintzen die orbaintzea oztopatzen duten elementuak kentzeko, eta baita orbaintze prozesua estimulatzeko ere, aurrerapen horien onurak maximizatzeko helburuarekin⁽¹⁴⁾.

Zauriaren orbaintze prozesua oztopatzen duen karga mikrobiologikoaren esanahi klinikoa Bendy et al-ek deskribatu zuen 1964an, zeinek jakinarazi zuen zauriaren sendatzea lortu ahal izateko, bakterio karga 10^6 CFU/ml baino txikiago izan behar zela. Zauri kroniko guztiek karga bakterianoa daukate, beraz arazoa dator CFU altuegia denean eta biofilma garatzen denean⁽¹⁵⁾.

Helburua zauriaren ohantzea optimizatzea da, edema, exudatua eta karga bakterianoa murriztuz⁽¹⁶⁾. Zauri batek zenbat eta denbora gehiago iraun orbaindu gabe, orduan eta aukera gehiago ditu gain-infekzioak izateko, izan ere, tarte horretan detrituek bakterioak proliferatzeko beharrezkoa den ohantze bat sostengatzen dute, horren azken emaitza biofilmaren agerpena izanik⁽¹⁷⁾.

Biofilma, bakterioen komunitate antolatu bat da non planktonek erasokorragoak diren beste batzuen propietateak bereganatzen dituzten. Gainera, ehun nekrotikoaren eta pasmoaren presentziak, eta gehiegizko metaloproteasa eta mikroorganismoak egoteak, orbaintzeko prozesu arruntean hesi gisa jarduten dituzten faktoreak dira⁽¹⁷⁾.

Hori dela eta, zauriaren ohantzea prestatzea, non desbridatzea eta garbiketa nabarmentzen diren, lesio baten tratamenduaren oinarritzko zutabeak dira. Ezinbestekoa da zauri bat garbi egotea edo aurretik aipatutako faktoreen eragina ez izatea, orbaindu ahal izateko⁽¹⁸⁾.

Praktika mediko modernoan hainbat desbridatze metodo daude; kirurgikoa, ebakitzaila, entzimatikoa, autolitikoa, osmotikoa eta mekanikoa. Metodo hauek, banaka edo era konbinatu batean erabil daitezke, orbaintze prozesua eraginkorragoa izan dadin. Hala ere, bada kanpoko zauriak desbridatzeko eta sendatzeko beste metodo ez hain konbentzional bat, Larba terapia⁽¹⁹⁻²¹⁾.

Larba bidezko Desbridatze Terapia (LDT) edo “*Maggot*” terapia, zizareen bitartez ehun ez-bideragarria deuseztatzeko metodo bezala deskribatzen da⁽²²⁾. Desbridatze mekanikoari dagokion metodo bat da, zeinek infekzioari aurre egiten laguntzeaz gain, zauriaren ixtean ere laguntzen duen⁽²²⁾.

Desbridamendua entzima proteolitikoen ekintzari esker lortzen da, izan ere, larbak jariatzen dituzten entzimen bitartez, zauriaren gainazaleko materia proteinikoa likidotzen da. Gero, lortutako material hori, material nutritibo gisa erabiltzen dute larbek. Gainera, ehun osasuntsua ez da kaltetua izaten, metodo erabilgarrien artean selektiboena izanik⁽²²⁾.

Larba-terapian erabiltzen diren hainbat larba espezie daude. Ikerketa gehienek *Lucilia sericata* espeziea aplikatzen dute, helduaroan euli berdea gisa ezagutzen dena⁽²³⁾. Larba mota hau klima epeletan erabiltzen da, klima tropikaletan aldiz, *Lucilia Cuprina* erabiltzen dute, biak genero berdinekoak izanik⁽²⁴⁾.

Terapia honetarako egokiak diren zaurizat hartzen dira: Zainetako ultzerak, oin diabetikoarekin lotutako ultzerak, ehun nekrotikoa duten presio-ultzerak, trauma osteko zauriak, infekzio kirurgikoak, hirugarren mailako erredurak eta *Staphylococcus aureus* infektatutako zauriak edo ohandzean biofilma aurkezten dituztenak⁽²⁵⁾. Bestalde, ez da egokia kailuaren desbridamendurako eta ezin zaio tratamendurik eman behar espoziziopeko protesi bati edo jada lehortuta dagoen behatz iskemikoari. Horrela ere, ez da egokia larbei alergia dieten pazienteentzat edota ezinikusi psikologiko edo objekzio etikoa dutenentzat. Arrisku faktoreak ere zaindu behar dira, izan ere odol-jario arrisku txikia duen ehunaren desbridamenduan, terapia eten egingo da odoljarioa agerikoa eta aktiboa bada⁽²⁶⁾.

Tratamendu gisa metodo hau erabiltzeak, zaurian 3 eta 5 egun bitartez larbak jartzea inplikatu du, 2 eta 3 aplikazio artean behar izanez batz beste⁽²⁷⁾. Aurkezteko modua poltsa mikrozulatu bat da non barruan larbak eta belaki erdi-gogor bat aurkitzen diren, hezetasuna mantentzeaz gain, poltsaren kolapsoa saihesteko. Merkatuan, aurkezpen komertzial desberdin asko daude eskuragarri, poltsa tamaina desberdinekoak eta poltsa bakoitzeko larba kopuru desberdinekoak, 50 eta 400 larba bitartean, ohandzearen tamainaren arabera aukeratuz. Gomendatzen den larba kopurua 8 eta 10 bitartekoa da zauriaren cm^2 bakoitzeko⁽²⁸⁾.

Tratamenduaren kostuari dagokionez, Ingalaterran egindako ikerketa batean ondorioztatu zen nola LDT erabilia erizaintzako denboraren batz beste kostua 10.77 ordukoa izan zela ultzera bakoitzeko, eta hidrogela erabili zuten erizainena aldiz, 53.85 ordukoa. Gainera, hilabetez jardundako tratamenduan, 492£-ko (564€) kostua izan zen larba taldearentzat eta 1054£-koa (1208.23 €) hidrogel taldearentzat. Oro har, larbak erosteko kostua 58.00£-koa (66.49 €) izan

zela kontuan hartuta, larba-taldearen tratamenduaren batez besteko kostua 78.64£ (90.15 €) izan ziren, eta kontroleko tratamendu-taldearena, berriz, 136.23£ (156.16 €)⁽²⁹⁾.

Ikerketa, txosten, zein lortu diren emaitzek gaur egun larba terapia oraindik ere baliagarria dela diote. Gutxienez 24 laborategik, 30 herrialde baino gehiagotako osasun profesionalei larbak ematen dizkiete⁽³⁰⁾. Hala ere, Espainiak ez du tratamendu hori merkaturatzen, ikerketa oso urria izanik lurralde nazionalen⁽³¹⁾.

Guzti hau kontutan hartuta, garrantzitsua da zauri kronikoei aurre egiteko metodo eraginkor bat aurkitzea. Literatura berrikusketa kritiko honen helburua LDT-ak behe gorputz adarretako ultzeren orbaintzean duen eraginkortasuna behatzea izango da.

3. HELBURUA

Behe gorputz adarretako ultzeren ohandzean Larba bidezko Desbridatze Terapiak (LDT) duen eraginkortasuna aztertzea.

4. METODOLOGIA

Diseinu mota: Literaturaren berrikusketa kritikoa.

Bilaketa estrategia: Helburua zehaztu ondoren, bilaketa 3 kontzeptu desberdinen bitartez egin zen: “*Behe gorputz adarretako ultzerak*”, “*desbridamendua*” eta “*larba terapia*”. Kontzeptu bakoitzaren sinonimoak bilatu ziren, eta gero ingelesera itzuli ziren. Ondoren, datu-base bakoitzak zituen tesauroen bitartez, hitz gakoak lortu ziren, eta horrela, kontzeptu bakoitzaren lengoia kontrolatua lortu zen. (*I. eranskina*).

Lanaren helburuari erantzuten zieten artikuluak aurkitu ahal izateko, bilaketa ekuazio ezberdinak burutu ziren, deskriptore desberdinak AND eta OR operadore booleanoekin konbinatuz, eta 2012. urtetik gaur egunerainoko filtroa aplikatuz bilaketa guztietan, eguneratutako informazioa lortu ahal izateko. (*II. eranskina*).

My Athens datu-base sarbidearen bidez hurrengo datu-baseetan egin ziren bilaketak: Ovid Medline, CINAHL, Cochrane library, CUIDEN eta EMBASE. Era berean, eskuzko bilaketak egin ziren European Journal of Vascular and Endovascular Surgery aldizkarian, Science Direct editorialean, eta baita ebidentzian oinarritutako praktika klinikoko gidetan, hala nola, RNAO.

Bilaketa zehatzago bat lortu ahal izateko, barneratze eta kanporatze irizpide batzuk ezarri ziren.

Barneratze irizpideak

Argitalapen mota: Helburuari erantzuten zieten diseinuak; hala nola, ikerketa kuantitatiboak: ausazko entsegu klinikoak, entsegu kliniko kontrolatuak, ikerketa kuasi-experimentalak, errebisio sistemak, meta-analisi artikuluak eta kohorte ikerketak.

Argitalapen data: 2012. urtetik 2023. urtera argitaratutako artikuluak hautatu ziren, eguneratutako literatura zelako.

Argitalapen hizkuntza: Gaztelaniaz eta ingelesez zeuden artikuluak hartu ziren kontutan, egileak menperatzen zituenak baitziren.

Argitalapenean jasotako parte-hartzaile mota: 18 urtetik gorako pertsonak, zain etiologiadun, etiologia iskemiko edota etiologia neuropatikoko ultzera zuena. Ospitale mailan zein lehen arreta mailan, eta *Lucilia sericata* edo *Lucilia cuprina* larbekin tratatua izan zena.

Kanporatze irizpideak

Argitalapen mota: Iritzi artikuluak, tesiak, gradu amaierako lanak, konferentziak eta eskuratu ahal izateko ordaindu behar ziren artikuluak.

Argitalapen data: 2012. urtea baino lehen argitaratutako artikuluak baztertu ziren, ez zelako gaur egungo literatura.

Argitalapen hizkuntza: Gaztelania edo ingelesa ez den beste edozein hizkuntza.

Argitalapenean jasotako parte-hartzaile mota: 18 urtetik beherako pertsonak, 18 urtetik gorako haurdun zeuden emakumeak, behe gorputz adarretako zauria ez den beste edozein zauria zuena, *C. macellaria* espeziea erabiltzen zuten ikerketak (espezie hau ez zen helburu terapeutikoarekin erabiltzen), eta LDT animalietan aplikatzen ziren artikuluak.

Literaturaren hautaketa prozesua eta artikuluen analisisa:

Lehenik eta behin, datu baseen bitartez (n=528) eta eskuzko bilaketaren (n=103) bitartez lorturiko artikulua errepikatu guztien (n=261) bazterketa burutu zen. Gero, bikoiztuta ez zeuden artikuluen izenburuak eta abstractak (n=271) irakurri ziren, eta helburuari erantzuten ez zioten (n=183), edo kanporatze irizpideak (n=6) eta barneratze irizpideak (n=20) betetzen ez zituzten artikuluak alde batera utzi ziren. Puntu honetan, hautaturiko artikuluen *full text*-ak lortu eta hauen lehen irakurketa bat egin zen (n=62). Berriro ere, testu osoko artikuluen irakurketaren ostean, helburuari (n=30) erantzuten ez zieten edo kanporatze (n=12) eta barneratze (n=7) irizpidean betetzen ez zituzten artikuluak baztertu ziren. (*III. eranskina*).


Azkenik, testu osoko irakurketaren bidez hautaturiko artikuluen (n=13) irakurketa kritiko metodologikoa egin zen, eta laginaren tamaina, esku-hartzea eta eskura zeuden datuei erreparatu ostean ez zen artikulurik baztertu. (*IV. eta V. eranskinak*).

Beraz, 13 artikulua desberdin hautatu ziren lana egiteko, eta kontsultatutako literaturaren laburpen-
taula egiten hasi zen artikuluen helburua, lagina, esku-hartzea eta lorturiko azken emaitzak taula baten adieraziz, datuen konparaketa bat egin ahal izateko eta azkenik, eztabaida eta emaitzen atala jorratu ahal izateko. (*VI. eranskina*).

5. EMAITZAK ETA EZTABAIDA

LDT-ak behe gorputz adarretako ultzeretan duen eraginkortasuna aztertzeko bilaketa bibliografiko bat egin zen, eta lorturiko ikerketen emaitzak aztertu ziren. Gaiaren helburua eta irizpideak betetzen dituzten 13 artikulua aukeratu ziren⁽³²⁻⁴⁴⁾. Diseinuari dagokionez, artikulua guztiak ikerketa kuantitatiboak izan dira, 6 ausazko entsegu kliniko⁽³²⁻³⁷⁾, 4 ikerketa quasi-experimental erretrospektibo⁽³⁸⁻⁴¹⁾, ikerketa quasi-experimental prospektibo bat⁽⁴²⁾, kohorte ikerketa erretrospektibo bat⁽⁴³⁾, eta meta-analisi artikulua bat⁽⁴⁴⁾.

Artikulu guztiak 2012. urtetik aurrera argitaratutakoak dira. 13 artikuluetatik, 9 ikerketa Asian egin ziren, 3 Europan eta bakarra Latinoamerikan.



1. Irudia: Ikerketa motak

2. Irudia: Ikerketak egindako lekuak

Artikuluak aztertu ondoren, hauen emaitzak 4 kategoria desberdinetan banatu ziren: (1) ultzeraren sendatze tasa eta zauriaren tamaina, (2) ohantzearen prestakuntza, non desbridamendu tasa eta bakterio karga landu ziren, (3) ultzeraren desbridamendu denbora eta ultzeraren sendatze denbora, eta azkenik, (4) terapiaren konplikazioak bi azpi-kategorietan sailkatuz, mina eta anputazioa ekiditea. (VII. eranskina).

1. Sendatze tasa eta zauriaren tamaina

Guztira 10 artikuluetan neurtu ziren sendatze tasa eta zauriaren tamaina. 7 ikerketek neurtu zuten sendatze tasa^(34,37,39,40,42-44) eta 5 artikuluk zauriaren tamaina^(32,34,35,41,42).

Tian et al-ek⁽⁴⁴⁾, 4 ikerketa desberdin eraman zituen aurrera LDT-ak oin diabetikoen zauriak sendatzeko eraginkortasuna ebaluatzeko artatze estandarrekin alderatuta. Lagina guztira 366 pertsonakoa izan zen, LDT aplikatu zen taldean 180 pertsona izanik eta artatze estandarreko taldean aldiz, 176. Interbentzio talde guztietan LDT aplikatu zen, eta artatze estandarreko taldeetan terapia desberdinak aplikatu ziren: hidrogela, terapia konbentzionala, desbridamendu kirurgikoa larruazalpeko intsulinarekin konbinatuta, eta zainketa estandarrek. Guztira

sendatutako ultzerak LDT taldean 41 (%29) izan ziren eta kontrol taldean 33 (%23). Azken emaitzei erreparatuz, desberdintasuna estatistikoa esanguratsua zen talde bien artean ($p=0.03$).

Siavash et al-ek⁽⁴²⁾ aurrera eramandako ikerketan ere, oin diabetikoa zuten pazienteei bi urteko jarraipena egin zitzaion. Lagina guztira 42 pertsonakoa izan zen, eta guztiei LDT aplikatu zitzaion. 35 pazienteek (% 83,3) batz bestea 1,79 hilabete baino gutxiagoan lortu zuten sendatze osoa. Horietatik 31, LDT-ko 5 saio amaitu eta gero sendatu ziren. Beste 4 pazienteei 10-15 aldiz aplikatu behar izan zitzaion LDT, eta beste 4 pazienteen kasuan, zauriak ez ziren erabat sendatu.

Eskuratutako datuekin beraz, LDT eraginkorra zela baieztatu zen oin diabetikoa pairatzen zuten pazienteetan. Hala ere, Siavash et al-ek⁽⁴²⁾ egindako ikerketan ezin izan zen ziurtatu estatistikoki alde esanguratsurik zegoenik, lagin kopurua txikia zen ikerketarako eta gainera, ez zegoen kontrol talderik.

Beste bi autorek ere LDT erabili zuten, kasu honetan, zainetako ultzeren sendatze tasa neurtzeko. Davies et al-ek⁽³⁴⁾, zain gutxiegitasun etiologiako ultzerak zituzten pazienteen jarraipena egin zuen. LDT konpresio terapiarekin konbinatuta eta konpresio terapia bera bakarrik aplikatuta lorturiko datuak alderatu zituen. Jarraipena, gehienez 12 asteak izan zen, eta jarraipena ospitale eta komunitateko erizainarekin partekatua izan zen. Lagina guztira 40 pertsonakoa izan zen, 2 taldeetan pertsona kopuru berdina egonik. Interbentzio taldeko sendatze tasa %73-koa izan zen, kontrol taldean aldiz, %68-koa. Emaitzei erreparatuz beraz, ez zen estatistikoki ezberdintasun esanguratsurik lortu sendatze tasari dagokionez. Sirekbasan et al-ek⁽³⁹⁾ egindako ikerketan aldiz, bi urteko jarraipena egin zitzaion guztira 38 pertsonari, zeintzuk guztira 55 ultzera zituzten, eta denei aplikatu zitzaion LDT. Terapiaren ostean, zauriaren sendatze osoa 42 ultzeretan eman zen (% 76,4) zazpi LDT saio eginda.

Mirabzadeh et al-ek⁽⁴⁰⁾, kasu honetan, etiologia iskemikodun, neuropatikoa zein mixtoa zuten zaurietan, LDT bidez tratatuak izan ziren pertsonen lehen kohortea aztertu zuen, lagina 28 pertsonakoa izanik. Ultzeren erabateko sendatzea 90 egunetan lortu zen batz bestea. Diabetesa pairatzen zuten pazienteetan, erabateko sendaketa 19 asteetan lortu zen (120 egun batz bestea) eta diabetesa ez zutenetan, 11 asteetan (90 egun batz bestea). Ikerketa amaieran, aldea estatistikoki esanguratsua izan zen ($p=0.03$). Aipatu beharra dago, ikerketa honetan osasun profesionalak ez ezik, pazientearen familiako kideek ere parte hartu zutela zauriaren sendaketetan formakuntza jaso ostean, honek efektu negatiborik eragin gabe, izan ere, zauri guztiak sendatu ahal izan ziren.

Sendatze tasa neurtu zuten azken bi ikerketetan, LDT etiologia iskemikodun ultzeretan aplikatu zen. Naishijima et al-ek⁽⁴³⁾, behe gorputz adarretako iskemia kronikoa pairatzearen ondorioz, birbaskularizatu eta gero ere, oin erdiko anputazioa jasan behar izan zuten pazienteetan aplikatu zuen LDT. Lagina guztira 39 pertsonakoa zen, hortik LDT zazpi pertsonari aplikatuz, eta gainontzeko 32 pertsonari aldiz, tratamendu konbentzionala. Anputazioa jasan eta 6 hilabetetara, zauria sendatzearen proportzioa nabarmen handiago zen LDT taldean (%86) kontrol-taldearekin

alderatuz (%38), desberdintasun estatistikoa esanguratsua izanik ($p=0.035$) eta horrez gain, anputazio kopuru handia ere saihestuz.

Cangel et al-ek⁽³⁷⁾ ere, birbaskularizazio periferikoa egin ostean, oraindik ere ultzera iskemikoak zituzten pazienteetan egin zuen ikerketa. LDT eta Presio Negatibozko Terapiaren (TPN) erabileraren emaitzak alderatu zituen 72 pertsonako laginaren bitartez, LDT aplikatu zen taldean guztira 39 pertsona egonik (%54,2), eta TPN aplikatu zen taldean 33 (%45,8). Hilabete pasata, TPN jaso zuten 6 pazienteetan besterik ez ziren zauriak erabat itxi (%18.2). Aurreko ikerketan ez bezala, LDT aplikatu zen taldeari dagokionez ez zen daturik jaso, beraz, ezin izan zen ziurtatu emaitza esanguratsua zenik.

Zauriaren tamainari dagokionez, Siavash et al-ek⁽⁴²⁾ eta Nair et al-ek⁽⁴¹⁾ oin diabetikoaren ultzera tamaina ere landu zuten. Lehenengo ikerketan, ultzera tamaina LDT aplikatzen zen saio bakoitzean neurtzen zen. Ikerketaren hasieran, ultzera tamaina bataz beste 27.97zm^2 -koa zen, eta amaieran, 7.88zm^2 -koa. Desberdintasuna beraz, estatistikoki esanguratsua zen bi taldeen artean ($p<0.0001$). Aipaturiko bigarren ikerketan ordea, oin diabetikoa zuten 30 pertsonetan neurtu zen ultzera tamaina. Hiru LDT saio aplikatu ostean, 14 pazienteek (%46,6) %50 baino gehiagoko hobekuntza erakutsi zuten, 8 pazienteek (%26,6) %30-40-eko hobekuntza eta 6 pazienteek (%20), %10-20 arterainokoa. Datuek beraz, LDT eraginkorra zela erakutsi zuten oin diabetikoaren tamainaren murrizteari dagokionez.

Opletalová et al-ek⁽³²⁾, Contreras et al-ek⁽³⁵⁾ eta Davies et al-ek⁽³⁴⁾ ere, zauriaren tamaina neurtu zuten, kasu hauetan zauriaren etiologia zainetakoa izanik.

Opletalová et al-ek⁽³²⁾, 30 egunetan zehar zain gutxiegitasuna dela eta hanketako ultzerak zituzten pertsonekin egin zuen ikerketa. Lagina 105 pertsonakoa zen, interbentzio taldean 51 pertsona izanik eta kontrol taldean 54. Sendatze-tasak oso desberdinak izan ziren 15. egunean 2 taldeen artean, zauriaren azalera murriztu egin baitzen (%14,6) LDT aplikatu zen taldean kontrol taldearekin alderatuz (%8,2), bataz besteko aldea esanguratsua izanik ($p=0.02$). Hala ere, sendatze-tasak ez ziren oso desberdinak 8. eta 30. eguneko taldeen artean eta interbentzio fasea amaituta, ez zegoen alde nabarmenik talde bien artean datu hauei erreparatuz.

Contreras et al-ek ere⁽³⁵⁾, egindako ikerketan aldiz, 6 astez baino gehiagoz diagnostikaturiko zain etiologiako ultzerak zituzten pertsonekin egin zuen ikerketa 12 hilabetez. Interbentzioa guztira 4 astetakoa izan zen, lagina 19 pertsonakoa izanik, 10 LDT taldean eta 9 kontrol taldean. Ikerketaren lehen egunean, LDT aplikatu zen taldeko ultzeren bataz besteko tamaina 23.13zm^2 -koa zen eta kontrol taldean 28zm^2 -koa. 4 asteko tratamenduaren ostean, LDT aplikatu zen taldeko ultzeren bataz besteko tamaina 14.82zm^2 -koa zen eta kontrol taldekoa 19zm^2 . Bi taldeak elkarren artean konparatuz, ikusi zen ez zela alde nabarmenik egon zauriaren tamainaren murriztean.

Davies et al-ek⁽³⁴⁾ egindako ikerketan, talde bien arteko desberdintasuna ez zen esanguratsua izan, izan ere, interbentzioaren lehen egunean, LDT taldeko pazienteen ultzera tamaina $8,1\text{zm}^2$ -koa zen eta kontrol taldekoa 10.8zm^2 -koa. Laugarren egunean aldiz, interbentzio taldeko

ultzeren tamaina 6.6zm²-ko tamainara murriztu zen batz bestea, eta kontrol taldean 7.6zm²-ko tamainaraino.

2. Ohantzearen prestakuntza

2.1. Desbridamendu tasa

LDT-ren desbridamendu tasa 7 artikuluetan ikertu zen: 3 zainetako ultzeretan^(32,34,39), beste 3 etiologia iskemikodun, zainetako, neuropatikoa edota mixtoko zaurietan^(33,38,40), eta ikerketa bakar batek oin diabetikoen zaurietan⁽⁴¹⁾.

Opletalová et al⁽³²⁾, Davies et al⁽³⁴⁾, Sirekbasan et al-ek⁽³⁹⁾ zain etiologiko ultzeren desbridamendu tasa neurtu zuten LDT aplikatu ostean.

Opletalová et al-ek⁽³²⁾ egindako ikerketan, lohiaren desbridamenduari dagokionez, lehenengo egunean LDT (%79.7) eta kontrol taldearen (%78.7) artean ez zegoen alde esanguratsurik. Hala ere, lohi portzentajearen alde 8. egunean hurrengoa zen: LDT (% 54.5) eta kontrol taldea (% 66.5), desberdintasun estatistikoa esanguratsua izanik (p=0.04). Interbentzio fasearen 15. egunean aldiz, LDT (%55.4) eta kontrol taldearen (%53.8) datuak ez ziren oso desberdinak izan, ezta 30. egunean ere lohi portzentajearen igoera dela eta, LDT (%55.4) eta kontrol taldea (%60.0). LDT-ren eta kontrol taldearen datuak bateratuta, lohien ehunekoak ez ziren askoz gehiago murriztu exudatua zuten zaurietan, exudatua ez zutenekin alderatuz.

Davies et al-ek⁽³⁴⁾ egindako ikerketan, interbentzio faseko 4. egunean, planimetria digitaleko sistema baten bitartez lohi azaleraren portzentaje aldaketa kalkulatu zuten. Konpresio terapia LDT-arekin konbinatuta aplikatu zen taldean, lohi azalera murrizketa 4.2zm²-koa izan zen eta konpresio terapia bakarrik aplikatu zen taldean 3.7zm²-koa. Datu hauei erreparatuz, lohien batz besteko desbridazioa %50ekoa izan zen kontrol taldean, eta interbentzio taldean aldiz, %84koa, desberdintasuna estatistikoa ere esanguratsua izanik kasu honetan (p<0,05).

Sirekbasan et al-ek⁽³⁹⁾ egindako ikerketan, desbridazio osoa bi astetan lortu zen ultzera guztietan, eta 20 ultzera (% 45,5) erabat garbitu ziren astebetaz LDT zikloekin.

Nair et al-ek⁽⁴¹⁾ egindako ikerketa izan zen oin diabetikodun pazienteen zaurietako desbridamendu tasa landu zuen ikerketa bakarra. Parte hartu zuten 30 pazienteetatik, 29rek (%96,6) zauriaren azalera zati handi baten desbridamendua jaso zuten. Zauriaren azaleraren plaka nekrotikoa eta lohia %5 baino gutxiago bazen tratamendua eraginkortzat hartzen zen, eta kasu honetan, paziente bakarra izan zen lohiaren agerpena %5 baino gehiago izan zuena.

Aipatutako ikerketetan ez bezala, Gilead et al-ek⁽³⁸⁾, Mudge et al-ek⁽³³⁾ eta Mirabzadeh et al-ek⁽⁴⁰⁾, etiologia iskemikodun, zein neuropatiko edota patologia mixtoko ultzeretan neurtu zuten desbridamendu tasa.

Gilead et al-ek⁽³⁸⁾, 10 urteetan zehar 435 pertsona tratatu zituen guztira LDT-rekin ospitale, zein osasun zentro eta kanpo kontsulta mailan, erretrospektiboki begiraturik datuak. Hauek, sendatzeko gaitzak ziren behe gorputz adarretako zauriak zituzten, gehienak (%90.5) hanketan lokalizatuz. Hanketako ultzerak zituzten paziente gehienak diabetesa (%48), zainetako ultzerak (%17) eta

etiologia mixtoko (%11) ultzerak zituzten. LDT aplikatu ostean, 357 pazientetan (%82,1) zauria erabat desbridatzea lortu zen, 73 pazientetan (%16,8) desbridatze partziala izan zen emaitza, eta bostetan (% 1,1) LDT ez zen eraginkorra izan. LDT-ren emaitzak eta pazientearen adina egiaztatzean, ikusi zen 60 urtetik beherako pazientearen desbridazio porrot arriskua %0,2 zela. 70 urtetik gora pazienteetan aldiz, erabateko desbridazioa lortzeko aukera %7-an murrizten zela ikusi zen, 70 urtetik beherako pazienteen arrakasta aukera ertainarekin alderatuta, %85.

Mudge et al-ek⁽³³⁾, zain gutxiegitasun etiologiako edo etiologia mixtoko ultzerak zituzten 64 pazienteetan neurtu zuen desbridamendu tasa. Talde batean LDT aplikatu zen eta bestean hidrogela, bietan pertsona kopurua 32 lagunekoa izanik. Interbentzioak iraun zituen 21 egunetan, 42 ultzera (%48) izan ziren guztiz desbridatuak. 42 ultzera horietatik, 31 (%67,4) LDT aplikatu zitzaion taldeari zegokion eta beste 11 ultzerak (%26,2) hidrogela aplikatu zitzaion taldeari. Azken datuei erreparatuz, interbentzio taldearen eta kontrol taldearen arteko aldea esanguratsua izan zen ($p=0.001$). Desbridamendua sakonago aztertu zen ultzeraren tamainari, iraupenari eta etiologiari erreparatuz. Estatistikoki alde esanguratsu ($p=0.003$) bat antzeman zen zauriaren tamainari dagokionez, izan ere, tamainan handi gisa sailkaturiko ultzera gehienak (>25 – 100 cm^2) ez ziren desbridatu interbentzio fasean. Iraupenari eta etiologiari dagokionez, ez zen desberdintasunik antzeman.

Mirabzadeh et al-ek⁽⁴⁰⁾ egindako ikerketan, LDT aplikazioaren ostean, zauri guztiak desbridatu ziren saio bat edo bi baino gutxiagorekin. Datuak kontutan hartuta beraz, LDT eraginkorra ($p<0.01$) zela ondorioztatu zen zain etiologia edo etiologia mixtoko ultzeretan zauriaren desbridamendu tasa murrizteko orduan.

2.2. Bakteria karga

Bakteria karga guztira 5 artikuluetan landu zen: 3 artikuluk zain etiologiako ultzerak^(32,35,39) zituzten pazienteetan begiratu zuten eta beste 2 artikuluek aldiz, oin diabetikoak zituzten pertsonetan^(36,44) oinarritu ziren.

Opletalová et al⁽³²⁾, Contreras et al⁽³⁵⁾ eta Sirekbasan et al-ek⁽³⁹⁾ neurtu zuten bakteria karga zain etiologiako ultzerak zituzten pertsonetan. Opletalová et al-ek⁽³²⁾ egindako ikerketan, kutsatutako zaurien kopuruak behera egin zuen 1. egunetik 15. egunera LDT aplikatu zen taldean, kontrol taldean aldiz, ez. *S. aureus*ari dagokionez, lehengo egunean LDT aplikatu zen taldean 49 pertsonetatik, 9 zaurik eman zuten positibo. Kontrol taldean aldiz, 50etik 7rek eman zuten positibo, desberdintasun estatistikoa ez esanguratsua izanik. Interbentzioaren 8. egunean, LDT taldean 50etik 10ek eman zuten positibo, eta kontrol taldean 52tik 9ek, desberdintasun estatistikoa $p=0.73$ izanik. 15.egunean, LDT aplikatu zen taldean 48 zauritatik 6rek eman zuten positibo, kontrol taldean aldiz, 48 zauritatik 13rek, desberdintasun estatistikoa $p=0.07$ izanik. *P. aeruginosari* dagokionez aldiz, lehengo egunean LDT aplikatu zen taldean 50 pertsonetatik, 4 zaurik eman zuten positibo. Kontrol taldean, 50etik 5ek eman zuten positibo, desberdintasun estatistikoa ez esanguratsua izanik. Interbentzioaren 8. egunean, LDT taldean 51etik 4ek eman zuten positibo, eta kontrol taldean 52tik 8ek, desberdintasun estatistikoa ez esanguratsua izanik.

15. egunean, LDT aplikatu zen taldean 49 zauritatik 4rek eman zuten positibo, kontrol taldean aldiz, 48 zauritatik 5ek, desberdintasun estatistikoa ez esanguratsua izanik. Beraz, *S. aureus*aren eta *P. aeruginosa*ri dagokionez, ez zen estatistikoki alde nabarmenik nabaritu. Gainera, interbentzio fasearen neurketa egun bakoitzean, pertsona batzuk ez ziren agertu, horrek eragin zuzena izanik ikerketan lortu ziren azken emaitzetan.

Bestalde, Contreras et al-ek⁽³⁵⁾ egindako ikerketan, LDT-rekin tratatutako taldean baktería karga gehiago murriztu zen oro har kontrol taldearekin alderatuz, estatistikoki desberdintasuna esanguratsua izanik ($p=0.05$). 41 mikroorganismo desberdin isolatu ziren, horien artean gram-positiboak, gram-negatiboak eta anaerobioak. Zauriaren ohandean, 1×10^6 CFU/g-tik gorako kontzentrazioan aurkitu zen baktería orori garrantzia kliniko eman zitzaion. LDT aplikatu zen taldean, bakterio kargaren murrizketa (1.16×10^6 CFU/g bataz beste) estatistikoki esanguratsua ($p=0.05$) izan zen kontrol taldekoarekin (3.91×10^6 CFU/g bataz beste) alderatuz. Bakterio gram-positibo, gram-negatibo eta anaerobioei dagokienez, murrizketa handiagoa izan zen gram-positiboen taldean ($p=0.04$).

Sirekbasan et al-ek⁽³⁹⁾ egindako ikerketan, 48 zaurik bakterio-populazio mixtoa zuten, eta beste 7 zauriek ez zuten inolako bakteriorik. Guztira 113 bakterio, horietatik 41 positiboak eta 72 negatiboak, eta bi legamia isolatu ziren. Interbentzioaren ostean erakutsi zen LDT-ak azkar desegiten zituela plaka nekrotikoak, eta nabarmen murrizten zituela zaurietatik isolatutako mikroorganismoak.

Emaitzei erreparatuz, 3 artikulua hauetatik soilik batean erakutsi zen estatistikoki datuak esanguratsuak zirela bakterio murrizketari dagokionez LDT aplikatzean. Hala ere, beste bi artikuluetan bakterio tasa murriztu zela erakutsi zen klinikoki eragina izanik.

Malekiam et al⁽³⁶⁾ eta Tian et al-ek⁽⁴⁴⁾ egindako ikerketan kasuan, oin diabetikoan neurtu zuten mikroorganismo karga. Malekiam et al-ek⁽³⁶⁾, oin diabetikoak zituzten 50 pertsonako kohortea erabili zuen ikerketarako, kontrol zein interbentzio taldean 25 pertsona egonik totalen. 50 oin diabetikoetatik, 44 zeuden kutsatuta, 10 *S. aureus*ekin eta 16 *P. aeruginosa*ekin. LDT aplikatu eta gero, *S. aureus*ekin infektaturiko 9 kasuetan bakterio karga nabarmen murriztu zen kontrol taldearekin alderatuz, bien arteko aldea esanguratsua izanik ($p=0.047$). *P. aeruginosa*ekin kutsatutako kasuen kopuruan ere, LDT aplikatu zen taldean bakterio agerpena 9tik 5era jeitsi zen, eta kontrol taldeko datuekin alderatuz datuak hobetoak izan ziren. Hala ere, estatistikoki desberdintasuna ez zen esanguratsua izan.

Tian et al-ek⁽⁴⁴⁾ bere ikerketarako erabilitako 2 artikuluk landu zuten infekzio intzidentzia. Ikerketa baten, LDT aplikatu zen taldean infekzio intzidentzia (18, %72) baxuago izan zen kontrol taldekoarekin alderatuz (23, %79). Beste ikerketan, LDT aplikatu zen taldean infekzio intzidentzia (18, %60) baxuago izan zen kontrol taldekoarekin alderatuz (24, %80). Hala ere, desberdintasun estatistikoa ez zen esanguratsua izan. Azken emaitzei dagokienez beraz, oin diabetikoan LDT aplikatu ostean bakterio karga murriztu zela ikusi zen, hala ere, datuak ez ziren estatistikoki esanguratsuak izan beste tratamenduekin alderatuz gero.

3. Desbridamendu eta sendatze denbora

Lau artikuluk neurtu zuten guztira desbridamendu denbora eta sendatze denbora. Sendatze denbora neurtu zuten 3 artikuluetatik, batek oin diabetikodunetan⁽⁴⁴⁾ egin zuen ikerketa, eta beste biek etiologia mixtoko zaurietan^(33,40). Desbridamendu denbora neurtu zuten 2 artikuluetatik, batek ikerketa oin diabetikodunetan⁽⁴⁰⁾ egin zuen, eta besteak etiologia iskemikodun zauriak zituztenetan⁽³⁷⁾.

Tian et al-ek⁽⁴⁴⁾, bere ikerketarako erabilitako bi artikuluk neurtu zuten zaurien sendatze denbora oin diabetikoetan. Lehen ikerketari zegokionez, LDT taldean, sendatze osoa 18.5 (SD 4.8) egunetan lortu zen. Kontrol taldean aldiz, 22.4 (SD 4.4) egun izan ziren. Beste ikerketan, LDT taldean 15.0 (SD 6.1) egun behar izan ziren, eta kontrol taldean aldiz, 18.0 (SD 4.4). Datuei erreparatuz, desberdintasun estatistikoa esanguratsua izan zen ($p=0.00004$).

Mudge et al-ek⁽³³⁾, zaurien sendatze denbora neurtu zuen zain etiologiako zein etiologia mixtoko zaurietan. LDT aplikatu zen taldean zaurien %68ak 12 aste behar izan zituen sendatzeko, eta kontrol taldean aldiz, denbora berdinean %73ak lortu zuen zauriaren erabateko sendatzea. Emaiziei erreparatuz, estatistikoki datuak ez ziren esanguratsuak izan.

Mirabzadeh eta al-ek⁽⁴⁰⁾, zaurien sendatze denboraz gain, desbridamendu denbora ere neurtu zituen etiologia mixtoko zaurietan. Zauriaren erabateko sendatze denborari dagokionez, paziente ez-diabetikoen kasuan 11 astetan eman zen, eta diabetikoen kasuan aldiz 19 astetan, desberdintasun estatistikoa esanguratsua izanik ($p<0,03$). Desbridamendu denborari dagokionez, diabetesa pairatzen ez zuten pazienteetan erabateko desbridamendua 15 egunetan eman zen. Diabetesa pairatzen zuten pazienteen kasuan, 60 egun inguru behar izan zuten, kasu honetan ere, desberdintasun estatistikoa esanguratsua izanik ($p<0,01$).

Cangel et al-ek⁽³⁷⁾, etiologia iskemikodun zauriak zituzten pertsonetan neurtu zuen desbridamendu denbora. LDT taldean, 20 pazienteek (% 51,3) granulazio-ehuna 15 egunetan garatu zuten, 14 pazienteek (% 35,9) hilabete baten buruan, eta beste bik (% 5,1) hilabete pasa eta gero garatu zuten. TPN aplikatu zen taldean aldiz, granulazio-ehuna hilabeteke epean sortu zen.

4. Konplikazioak

4.1. Mina

Mina guztira 6 ikerketa desberdinetan neurtu zen: 3 artikuluk etiologia mixtoko zaurietan^(33,38,40) neurtu zuten mina, 2 artikuluk zain etiologiako zaurietan^(33,35) eta beste batek oin diabetikoan⁽⁴²⁾.

Opletalová et al⁽³²⁾, eta Contreras et al-ek⁽³⁵⁾ egindako ikerketan, zain gutxiegitasunaren ondorioz zauriak zituzten pazienteetan neurtu zuten mina. Lehenengo ikerketan, LDT aplikatu zen taldeko pertsona batek tratamendua etetzea eskatu zuen interbentzio fasearen 6. egunean, eta zuzenean laginetik kanporatua izan zen. VAS eskalaren bidez neurtu zen mina eta pazienteek 0tik 10era bitartean puntuatu behar zuten zenbaterainokoa zen. LDT aplikatu zen taldean minaren batz besteko puntuazioa 2.3 izan zen, eta kontrol taldean 2.7. Bigarren ikerketan, lehen egunean minaren batz besteko puntuazioa 8/10 izan zen LDT taldean, eta kontrol taldean 5/10 ($p=0.61$).

Laugarren egunean aldiz, LDT taldean 6/10 izan zen puntuazioa, eta kontrol taldean 2.14/10 ($p=0.07$). Datuei erreparatu, ez zegoen estatistikoki alde esanguratsurik LDT edo kuretarekin desbridatzeko orduan. Hala ere, kontrol taldeetan desbridamendu kirurgikoaren aurretik anestesia jartzen zela aipatu beharra dago.

Gilead et al-ek⁽³⁸⁾ eta Mudge et al-ek⁽³³⁾, zain etiologiadun zein etiologia mixtoko zaurietan neurtu zuen mina. Gilead et al-ek⁽³⁸⁾ egindako ikerketan, oro har, pazienteen %38kak adierazi zuen mina areagotu egin zela LDT aplikatu zitzaizkionean, eta analgesikoekin izan ziren tratatuak. Bost pazienteek tratamendua eten zuten LDT-ak eragindako minaren ondorioz. Gizonezko pazienteak gehiago kexatu ziren minaz emakumeekin konparatu.

Mudge et al-ek⁽³³⁾ egindako ikerketan, lagin totaletik 26 pertsona (%29.5) izan ziren erretiratuak, eta arrazoietako bat mina izan zen (LDT $n=8$, hidrogel $n=1$). Mina neurtzeko VAS eskala erabili zen, zeinetan "0" mina eza zen eta "100" minik txarrena. Kohorte osoaren batz besteko puntuazioa 36.1 (SD 28.13) izan zen. Interbentzioarekin hasi aurretik, LDT aplikatu zen pertsonen batz besteko mina 41.54 (SD 28.80) izan zen, eta kontrol taldean, 30.17 (SD 26.44). Azken ebaluazioko bisitan, minaren batez besteko puntuazioak behera egin zuen oro har, LDT taldeko batz besteko mina 19.26 (SD 21.48) izanik, eta kontrol taldean 21.80 (SD 27.98). Azken datuei erreparatu, talde bien arteko aldea estatistikoki esanguratsua izan zen, zeinek adierazten duen minaren esperientzia orokorra txikiago izan zela azken ebaluazioan ($p<0.001$). Minaren eragina sakonago aztertu zen, jakiteko ea ultzeraren iraupenak eragina ote zuen VAS eskalan jakinarazitako minaren larritasunarekin. 12 hilabete baino gutxiagoz ultzera zuten pazienteen kasuan minaren batz besteko puntuazioa txikiagoa zen 37.44 (SD 29.66), 12 hilabetez baino gehiagoz zutenekin alderatu 33.41 (SD 25.00). Hala ere, estatistikoki ez zegoen desberdintasun esanguratsurik talde bien artean. Minaren eragina sakonago aztertu zen ere ultzeraren etiologiak eragina zuen ala ez jakiteko. Soilik zain etiologiako zauriak zituztenen batz besteko minaren puntuazioa 35.77 (SD 28.37) izan zen, eta etiologia mixtoko (zain zein iskemiko) zauriak zituztenetan 38.35 (SD 27.53). Azken datuei erreparatu, estatistikoki ez zegoen alde esanguratsurik.

Siavash et al-ek⁽⁴²⁾ egindako ikerketan oin diabetikodun pertsonetan neurtu zen mina. LDT aplikatu zitzaizen taldeko 5 pertsona (%11.9) kexatu ziren minaz guztira, horietatik emakumeak lau (%25) eta gizon bat (%3.8) izanik. Laginaren totaletik, gizon eta emakume kopurua berdina zen, generoen arteko desberdintasunik ez emanik beraz.

Mirabzadeh et al-ek⁽⁴⁰⁾, bereziki etiologia iskemikodun (%55) zauriak zituzten pazienteetan neurtu zuen mina, baina baita etiologia neuropatiko zein zain etiologiodun zauriak zituztenetan. LDT-ak eragindako minari zegokionez, 29 pazientetatik, 27ik ez zuten minik izan (%93), eta beste bik bai. Gainera, batek min moderatua (%3.5) izan zuela esan zuen eta beste batek min handia (%3.5), hala ere, honek ez zuen eragotzi pazienteek terapiarekin jarraitzea.

4.2. Anputazioa

Anputazioaren sahiestea guztira 6 artikuluk landu zuten: 2 artikuluk etiologia iskemikodun zaurietan^(37,43), beste 2 artikuluk oin diabetikoan^(42,44), eta azken 2 artikuluek zain etiologia eta etiologia mixtoko zaurietan^(38,40).

Naishijima et al⁽⁴³⁾ eta Cangel et al-ek⁽³⁷⁾, etiologia iskemikodun zaurietan begiratu zuten anputazioaren sahiestea zenbatekoa izan zen. Naishijima et al-ek⁽⁴³⁾ ikusi zuen LDT aplikatu zitzaion pertsona batek ere ez zuela anputaziorik jasan behar izan. Hala ere, behin desbridamenduaren ondoren, eta larruazal txertaketaren ebakuntza eginda, ondorioztatu zen estatistikoki ez zela alde nabarmenik erakutsi 6 hilabetera anputazio gabe bizirauteari ($p=0.41$), eta ebakuntza osteko anbulazio proportzioei ($p=0.65$) dagokienez talde bien artean.

Cangel et al-ek⁽³⁷⁾ egindako ikerketan aldiz, LDT aplikatu zitzairen hiru pazientei (%7.7) behatz bat anputatu behar izan zitzairen. TPN aplikatu zen taldean, oinen anputazioa 14 pazienteetan egin zen (%42.4), behatz bakarreko anputazioa bostetan (%15.1), eta behatz guztiak lau pazienteetan (%12.1). Datuei erreparatuz, estatistikoki alde esanguratsua zegoen talde bien artean behatzen anputazioari dagokionez ($p<0.001$).

Tian et al-ek⁽⁴⁴⁾ oin diabetikoetan anputazio tasa neurtu zituzten bi artikuluk erabili zituen bere ikerketan. Ikerketa baten, LDT taldeko anputazio tasa (5, %20) baxuagoa izan zen kontrol taldearekin (11, %38) alderatuz. Beste ikerketan, LDT (3, %10) aplikatu zen taldean anputazio tasa baxuagoa izan zen kontrol taldearekin (10, %33) alderatuta, eta beraz, talde bien arteko desberdintasuna estatistikoki esanguratsua izan zen ($p=0.02$).

Siavash et al-ek⁽⁴²⁾ ere ikusi zuen oin diabetikoa zuten pertsonen lagin totaletik ($n=42$) LDT aplikatu ostean, 39 anputazio eragotzi zirela eta guztira 3 pertsonak jasan behar izan zutela anputazioa (%7.1).

Gilead et al-ek⁽³⁸⁾ LDT aplikatzean gutxienez 55 anputazio kasu eragotzi zirela erakutsi zuen zain etiologiako eta etiologia mixtoko zaurietan.

Mirabzadeh et al-k⁽⁴⁰⁾ egindako ikerketan, LDT aplikatu aurretik 13 zaurik (%45) anputazioa jasan beharko zutela uste zuten, baina, guztietan desbridamendu totala lortu zenez, zauri batek ere ez zuten anputaziorik jasan. Beraz, azken datuei erreparatuz, anputazioa saihesterako orduan LDT-ak efektu positiboa zuela erakutsi zen.

6. ONDORIOAK

Berrikuspen honen emaitza nagusia, LDT behe gorputz adarretako zauri kronikoen desbridamendua lortzeko eraginkorra dela da. Izan ere, desbridamendu tasari dagokionez, zazpi artikulutatik laurek estatistikoki desberdintasuna dagoela erakutsi dute beste tratamendu konbentzionaletan alderatuz. Beste hiru ikerketen kasuan ere, LDT-ak klinikoki eragin positiboa dute. Ikerketa baten, desbridamendua sakonago aztertu zen ultzeraren tamainari, iraupenari eta etiologiari erreparatuz. Estatistikoki alde esanguratsu bat antzeman zen zauriaren tamainari dagokionez, izan ere, tamainan handi gisa sailkatutako ultzera gehienak (>25 – 100 cm²) ez ziren desbridatu. Iraupenari eta etiologiari dagokionez, ez zen desberdintasunik antzeman. Desbridamendu tasa murriztean, zauriaren tamaina ere murriztu, eta hortaz sendatze tasa igo zela erakutsi zen LDT aplikatu zen zaurietan.

Desbridamendu eta sendatze denborari dagokionez, oin diabetikodunetan LDT-ak sendatze denbora murrizten zuela erakutsi zen, estatistikoki alde nabarmensua egonik. Sendatze denbora, zain etiologiadun zaurietan ere neurtu zen bi artikuluen kasuan, batek hidrogelarekin alderatuta estatistikoki alderik ez zegoela erakutsi zuen, eta besteak aldiz, estatistikoki eraginkorra zela desbridamendu denbora murrizteko orduan, hala ere, aipatu beharrekoa da ikerketa honetan kontrol talderik ez zegoela.

Infekzio tasaren murrizketa 5 ikerketa desberdinetan neurtu zen, eta soilik bi artikuluetan ikusi zen LDT-ak eragin klinikoa izan zuela. Hala ere, ikerketen kalitate txarra dela eta, emaitzek ez zuten balio handirik, eta gainera, beste 3 artikuluen kasuan LDT estatistikoki ez zela esanguratsua ikusi zuten beste tratamendu konbentzionaletan alderatuz.

Minari dagokionez, LDT aplikatu bitartean handitu egin zela ikusi zen. Hala ere, beste tratamendu konbentzionaletan eragindako minarekin alderatuta, datuak estatistikoki ez zirela esanguratsuak ikusi zen, eta aipatu beharra dago, desbridatze kirurgikoaren aurretik anestesia topikoa jartzen zela. Ikerketa baten kasuan, mina sakonago aztertu zen zauriaren etiologiari eta denborari dagokionez, eta ikusi zuten ez zela desberdintasunik antzeman.

